

Helbidea: Entzia Etorbidea, 52 - Alda (Araba)
Telefonoa: 945-406006
Faxa: 945-406136
e-maila: euskera@montanaalavesa.com

Bulego eta jendaurreko ordutegia:
astearteetan 12:00 - 15:00

Udalaren euskara zerbitzua Kuadrillaren bidez eskainitako zerbitzua da.

NORMALIZAZIO PLANAK

Haraneko euskara zerbitzuak euskara sustatzea du helburu; horretarako tresna da Kuadrillako Batzarrak onartu zuen eskualderako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Egun, indarrean dago 2014-2018 eperako plana. (lotura pdf)

Udal barruko erabilera ere sustatu eta bideratu behar du herritarrek aukeratzen duten hizkuntzan arreta eta zerbitzuak jaso ditzaten. Eginkizunak eta helburuak zehazten dira Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean. Plana 2013-2017 eperako onartu zenez, aurten plan berria diseinatu eta onartuko da. (lotura pdf)

Halaber, udalerrian egiten den euskarazko ekintzen egitaraua koordinatzen du.

Eginkizun hauek aurrera eramateko badaude hainbat egitarau eta laguntza mota.

LAGUNTZAK

Udalak euskara ikasten duten herritarrei laguntzen die.

HIZKUNTZA-AHOLKULARITZA ZERBITZUAK

Udalerriko eguneroko bizitzan parte hartzen duten erakunde, elkarte eta bestelako egiturek jaso dezakete udalaren hizkuntza-aholkularitza zerbitzua:

- Zuzenketak: euskarazko edozein motatako testuen zuzenketa
- Aholkularitza: euskarazko testuak prestatzerakoan sortutako zalantzak, aholkuak, galderak...
- Itzulpenak: gaztelaniaz sortutako testuen itzulpena.

KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAREN DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

Datu-soziolinguistikoak dira hizkuntza-politika diseinatzeko oinarria, euskararen ezagutza eta erabilera zehazten dituzten datuak. Azken ikerketa 2016an egin zen, eta aurten argitaratuko

dirrela aurreikusten da. Bitartean, 1986-2011 tarteko informazioa txosten honetan jasotzen da.
(lotura pdf)

EUSKARA ZERBITZUAREN FUNTZIOAK

Besteak beste, euskara teknikariaren funtzioak honako hauek dira:

- a) Euskararen erabilera sustatzen eta indartzen laguntzea Kuadrillako udal guztiei euren menpeko diren egiturei eta helbidea udal horietan duten elkarteei. Halaber, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, berariaz hori eskatzen duten ekonomia eragileen artean.
- b) Itzulpen zerbitzua eskaintzea, berariaz hori eskatzen duten ekonomia eragileei, betiere Kuadrillako teknikariak egin duen plangintzaren eta dauzkan baliabideen arabera.
- c) ESEParen 2018ko Kudeaketa Plana egitea, udaletako teknikarien koordinazioaren eta lankidetzaren bidez.
- d) ESEParen Kudeaketa Planean jasotako jarduera eta programak gauzatzen laguntzea.
- e) Zein administrazio publikotan jardun behar diren, haien Erabilera Plana garatzea.
- f) Kasuan kasuko kuadrillan edo udalerrian sortzen den Euskara Batzordea dinamizatzea.